

ELKAR HIZKETA

Joxemiel BARANDIARAN, **Arkeologiaz mintzo**

Andoni SARRIEGI

On Joxemiel Barandiaranek, ez dut uste aurkezpen beharrik duenik. Gutartean oraindano sortu den arkeologo eta etnologorik handiena dugu. Hor daude bere azterketa lanak eta idatzi dituen liburuak . Lekuko hoberik ez daiteke bila.

Elhuyar, zientziez kezkatzen da eta zientziez ari da lanean. Beharrezkoa da bezaz, Euskadiko zientzi gizonik handienetakoari bere alorraz galdetzea.

– Arkeologiak, zein eremutan egiten du lan?

– Arkeologia hitz honekin, Prehistoria edo Historiaurrea esan nahi izaten dute batzuk. Beste batzuk berriz, Burdin Harotik gerora gizakia~~k~~ utzi dituen aztarnen ikaskuntza bakarrik adierazi nahi izaten dute.

Prehistoria edo Lehen Gizonaz hitzegiten dutenek, lehenagoko gizonaren aztarnak aztertzen dituzte, gizakien berriak idatziz ematen hasi ziren baino lehenagoko gizakien berriak eta haien gauzen ikaskuntza.

Guk geurok, denari deitzen diogu Arkeologia.

– Beste zein zientzi adarrez baliatzen da?

– Askotaz. Antropologia, Paleontologia, Geologia (Sedimentologia bereziki), Osteologia, Geografia, Espeleologia, Palinologia (espora, zuhaizki eta belarkiak ezagutzeko) eta Kimikaz (zenbait analisitarako) batipat. Etnologia ere ezagutu beharrekoa da ongi lan egiteko. Gu geu Etnologiatik abiatu~~r~~ik heldu ginen Arkeologiara.

– Arkeologiari, nork eta noiz ekin zion Euskal Herrian eta zeintzu ziren gizon haien metodoak?

– Hego Euskal Herrian lehenengoz, Araban izan dira gehientxoena arituak. Joan zen mendean (1.831an) bilatu zuten Egilazen, Haizkomendiko Trikuharria (dolmena). Gero, horri buruz eta, Zabala Aguraingo alkate zenak agiri bat egin zuen , nola bilatu zuten eta abar esanez. Ondoren gehiagok ere aztertu eta ikasi zuten, hala nola, Becerro de Bengoa, Baraibar eta Julian Apraizek, eta beste trikuharri batzuk bilatu ere bai.

Bizkaian ere bazen bat, Gálvez Cañero zeritzana. 1.912an argitaratu zituen bere lanak Bizkaiko harpe batzutan ibili zelarik.

Gipuzkoan, joan zen mende bukaeran, Conde de Lersundik egin zituen azterketa batzuk Haizpitarteko harpe batetan, baina mota honetako lanen berri asko, galdu egin zen lanak ez argitaratzeagatik eta Donostiako Museoan, adibidez, oso gauza gutxi agertu zen haik utzitakorik. Galdu egin ohi dira Museotan. Ez dut konfiantza handiegirik Museo batzurenagan.

Nafarroan Juan Iturralde Suit-ek, trikuharri batzuk bilatu zituen nafar aldeko Aralarren. Gero, 1.911an argitaratu zuen gauzon berri. Geroago Aranzadi eta Ansoleagak egin zituzten azterketak, Iturraldek bilatutako trikuharrietan.

Ifar Euskal Herrian, bat behintzat Daguin izan zen. Beste bat Vidal eta gehiago ere bai. Garrantsuetakoa Passemard da. Honek Isturitzeko harpean egin zuen lan handia. Munduko aztarnategirik onenetakoa da azterketak egiteko. Mende honen haseran aritu zen hau eta 1.914ean argitaratu zuen lan bat, berak Isturitzen, Olhan eta beste leku batzutan azterketen berri emanez. (1)

Cromlechak aztertzen berriz Gombault aritu zen, Okaben (Irati ondoan) bereziki. Metodoak ez dira guztionak berdinak izan. Nik neuk ez ditut ikusi lanean eta ez da erraza denak esaten. Gehienak honela uste dut: ustez eta zerbait zegoen tokian, nola harpe, trikuharri ala cromlech, lurra harrotu eta agertzen zena jaso, tresna, hezur, eta abar... Gizakiarena zela uste zuten guztia jaso. Gero, batzuk berri eman eta beste batzuk ez. Bilatua, batzuk etxean gordetzen zuten eta beste batzuk Museotara eramaten edo bidaltzen. Gerora ordea, erraz galdu dira (Egilazkoak Madrilen adibidez). 1.936ko gudatean ere asko galdu ziren. Gasteizen adibidez Eusko Ikaskuntzak ordurarte bilatuetatik gordeak zituenak. Geroztik ere ordea, asko bilatu da eta hor daude Museotan. Dena ez da beraz galdu.

Batzuk, azterketarako hartutako langileei esaten zieten, alegia horrelamoduzko gauza bitxirik aurkituz gero gordetzeko eta gero langileek bildua jasotzen zuten. Gehienetan begizko azterketa egin da. Inoiz Paleontologoek ere estudiatzen zituzten. Harlé-k adibidez Haizpitarteko hezurak aztertu zituen. Bordeleko Unibertsitateko Paleontologoa zen. Gehienetan ordea ez zen horrela gertatzen.

– Zu lanean aritu zaren denbora luzean zein teknika erabili dituzu eta nola joan dira aldatzen teknika horik?

– Gu hasi ginenean 1.917a zen. Ni neu Arkeologian Aranzadirekin hasi nintzen. 1.916an hasi nintzen zerbait egiten. Aranzadi 4 bat urtez lehenagotik ari zen. 1.917an bada, Aranzadi eta Egurenekin, Aralarko trikuharrietan azterketak egiten hasi nintzen. Geroago, Aizkorri (Urbian), Ataun-Burundan, Altzarian, Elosuan, eta abarretan... aritu ginen. Guk era honetan lan egiten genuen:

– Lehenik tokiaren argazki bat egin, hasi baino lehen nola zen jakiteko.

– Ondoren, toki eta monumentu, harpe edo zelazkoaren plano egin. Tokiarena lehenik eta gauzena gero. Tokiarena egiterakoan, paper koadrikulatua erabiltzen genuen eta metro edo metro bat hartzen koadroko. Horrela, koordinatu bidez, gauzak zein tokitan bilatuak ziren jakiten genuen eta bilatutakoari koordinatu horik ezartzen genizkion.

– Hatxurtzerakoan, aska bat ebakitzen genuen beti eta ebakidura aztertzen. Maila desbedinetako estratoak aztertzeko bidea zen hau.

– Lurraren analisisa egiten genuen, baina makroskopikoa bakarrik.

– Metalena bai, hori beti egin izan da. Analisis kimikoz jakiten baita zein metal den.

– Harriena ere zerbait egiten genuen sopletearen bidez. Berotzean, garraren koloreak adierazten du, zein motatakoa den. Hau normala da geologi asnalisetan. Geroago, 1.930az geroztik, hasi ginen ebakidurako lurki eta harriki gaiak eta abar... Labo-

rategietara bidaltzen. Honela, analisi xeheagoak egiten ziren eta estratoen mailakaztea hobeki egiten.

Duela hogeitatu urte edo... Karbono 14 deitu analisia hasi zen. Bizia izandako gauza guztientzat balio du: hezur, ikatz, txirla, e.a. Zenbat urte dituen jakiteko edo ta hezur haien jabea hil zela zenbat urte diren jakiteko. Erradiaktibitate teknika baliatzen da analisi hau egiteko.

Sedimentologian ere aurrera egin zen.

Ebakidurako estrato bakoitzaren berri jakiteko, azterketa makroskopikoa bakarrik ez zen egingo ordutik aurrera. Maila desberdinetako muestrak bildu eta Laborategietara bidaliko genituen. Honela, han zer ematen zuen ikusirik, estratoak ongi bereziko genituen. Gaur honela jokutzen da noski.

Garaitu horretan baita ere, arkeologi gaien metodo estatistikoa erabiltzen hasi zen. Maiztasunen neurketa beste hitzez esateko. Honek ere asko eragin du aurrera bidean.

Bilatutako hezur eta tresnen (kaskahezur eta abar) angeluak eta distantziak neurtzeko, doitasun handiko neurgailuak erabiltzen dira. Honi antropometria deritza. Aranzadi genuen antropologo, baina begibista hobea nuela eta neuk egiten nuen antropometria.

Planoei dagokienez, berdin jarraitzen dugu eta jarraitu beharko da aurrerantz ere. Lehengo aldean, analisi kimikoak egiten dira gehiago eta gaien berri zehatzago jakiten da. Dibujoa edo marrazkigintza ere ongi egin behar da. Esku ona behar da.

Bilakatutako tresna, hezur eta gainontzeko gauzak, ateratako lekuan bertan uzten dira eta argazkiak egiten dira. Hau lehen baino askoz ere gehiago egiten da.

– **Nolako ekipamendu teknikoa beharko zenukete gaur Euskal Herrian, arkeologia moderno bat egiteko?**

– Planoak egiteko, baditugu neurgailuak (metro, teodolito, nibel, plomada, e.a.) Analisisietan dugu beharrik handiena. Paleontologia ere asko egin liteke, San Telmo Museoa, Aranzadi Elkartean, e.a. Metalekiko analisi kimikoak, ba tira, egiten dira han hemenka. Sedimentologian ere zenbait analisi bai baina beste batzuk ez. Paliologian ere beharrik badira analisiak egiterakoan. Bi alorrotan Aranzadi Elkartea dabil Laborategia prestatzekotan.

Halere, Laborategi premia handia dugu. Sedimentologiako analisi kimiko sakonetarako eta karbono 14 analisisietarako, kanpora bidali behar izaten ditugu gaiak. Dela Gröningen (Holanda), Paris, Estatu Batuetako Unibertsitate edota azkenaldian Madrillera.

Oso interesgarria genuke, baita ere, zeramikaren adina aztertzeke erabiltzen den teknika baliatzea. Azken aldi honetan egin ohi da analisi hau ere, baina kanpota. Analisi honen bidez, zeramika egin zeneko deklinazio magnetikoa ere zertzen da.

– **Zein motatako espezialistek osatu beharko lukete Euskal Herriko arkeologi aztertzeke talde bat?**

– Lehen aipatutako zientzia laguntzaileetakoek. Lehen baino hobeto gaude. Hiruzpalau lagun besterik ez ginen gu. Gaur ugariago gabilta. Talde onak ari dira osatzen. Itxaropen handia dute alde honetatik. Talde horiek (Hegoaldeko 4 probintziotakoak) urtean behin behintzat biltzen dira. Ifarrekoekin ez da harreman gehigirik pertsona mailako harremanak badiren arren.

– **Nola ikusten duzu Euskal Herriko arkeologi azterketen etorkizuna?**

– Ongi ikusten dut. Jende asko ari da lanotan sartzen. Unibertsitatea, oinarri da honetan, horren inguruan sortzen baitira taldeak. Iruinean ere, honela sortu da eta

Bizkaian ere bai. Irakaskuntzaren babesean eta abar... honetara daiteke jendea, bestela zaila baita ogibide bezala lan egiten.

(1) Zenbait datu emateko ez dut aukerarik, garai haietako aldizkari eta idazkiak "Obras Completas" egiteko Bilbon dituztenez. Halere, berri zehatzagoak jakin nahi dituenarentzat, hona hemen Bibliografia interesgarri bat aurki dezakeen liburu bat:

"EL HOMBRE PREHISTORICO EN EL PAIS VASCO" J.M. Barandiaran.
Editorial EKIN Buenos Aires 1.953.

